

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta-amaikagarren urteko Azilaren ogeitamarrean Etxaide jauna maipuru dala ta Krutwig, Irigarai, Gorostiaga ta Oleaga Euskaltzainak ta A. Donosti urgazlea dagozala, egiten dau Euskaltzaindiak il oneri dagokon batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Urrengo, lenaurreko batzar-agiria arakurri ta onesten da.

Dassance ta Villasante euskaltzain jaunak gaurko batzar onetara euren ezin etorria iragarri dabe.

Azkue, Euskaltzainburu bikain ta maitea il onen bederatzian il zala adierazoten da. Barri itun ta negargari au oso atsekabez artu dau Euskaltzaindiak. Baita beste euskaltzale askok be, Tamalagur mindunak eldu dira; euren artean "Real Academia Española" k "Junta de Cultura de Vizcaya" k, Esteban Bilbao, Españako Batzarnagosi buruak, Guipuzkoako Ekauta-Lendakariak, Peñaflorida-ko Kondeak, "Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais"-ek, Bonifazio Etxegaraik, Pedro Irizarrek, Juan Aspiazuk, Celestino Agirrezarobek, A. A. Otañok, Labaienek, Lekarozko Irakastegiburuak, Irigaraik J. M. Barandiaran'ek eta abar...

Ildako jaunaren gomutan eta omenez zerbait egin bear dala ebatzi da. Lenengo Bizkaiko "Junta de Cultura" gaz alkar-itunduta, batzar ospatsu bat Bilbaon; geroagoan Azkue jaunaren euskalan ugari ta sakonak barriz argitaratzea, ta batez be ta lenen bere Euskal-Iztegi bikaina, lenengoz argitaratuzanetik orain arte egileak bilduta eukazan geigarriak ezarririk.

Krutwig jaunak adierazoten dau, Bilbon "Julio Urkijo" izenagaz euskeraren alde diarduan Bazkunak, bere aldetik beste batzar bat Azkueren omenez gertutan dabilala.

Beste barik, jazoera au dala-ta Euskaltzaindiaren atsekabea erakutsirik, araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.

Zadorlaria
Nazario Oleaga

En San Sebastián a treinta de noviembre de mil novecientos cincuenta y uno, reunidos en el Palacio de la Excma. Diputación de Guipúzcoa, bajo la presidencia del Sr. Echaide los académicos Srs. Krutwig, Irigaray, Gorostiaga y Oleaga y el correspondiente J. Donosti, celebra la Academia de la Lengua Vasca la sesión correspondiente al presente mes.

Comienza la sesión con la oración reglamentaria y a continuación se lee y aprueba el acta de la sesión precedente.

Los académicos Srs. Dassance y Villasante han excusado su asistencia a la presente sesión por imposibilidad de concurrir a ella.

Se da cuenta del fallecimiento el día 9 del presente mes del eminente y amado Presidente de esta Academia de la Lengua Vasca Sr. Azkue. Con profundo sentimiento recoge la Academia esta triste y luctuosa noticia. Igualmente otros muchos vascófilos de muchos de los cuales han llegado comunicaciones de pésame; entre ellas de la Real Academia Española; de la "Junta de Cultura de Vizcaya", de D. Esteban Bilbao, Presidente de las Cortes Españolas; del Presidente de la Diputación de Guipúzcoa, del Conde de Peñaflorida; de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, de D. Bonifacio de Echeagaray, D. Pedro Irizar, D. Juan Aspiazu, D. Celestino Aguirrezarobe, P. Otaño, Labayen, Director del Colegio de Lecaroz, Irigaray, J. M. Barandiarán y otras.

Se acuerda realizar algunos actos en recuerdo y homenaje del finado. En primer término y de acuerdo con la Junta de Cultura de Vizcaya, una sesión necrológica solemne en Bilbao; y más tarde una reedición de las numerosas y profundas obras vascongadas del Sr. Azkue y en especial de su magnífico Diccionario Vasco, complemento con apéndice de los materiales que el autor tenía recogido desde la última edición.

El Sr. Krutwig da cuenta de que la entidad que en Bilbao y con el título de "Julio de Urquijo" labora en pro del vascuence, prepara también por su parte una velada de homenaje al finado Sr. Azkue.

Con lo cual y sin entrar en otros asuntos, en señal de duelo se levanta la sesión.

El Secretario
Nazario Oleaga